

HOLLYWOODeko IZARRA

PERTSONAIAK:

- | | | |
|-----------------------------|--------------|-------------|
| . Kontalaria | . Ane | . Andoni |
| . Koko (txontxogilo bat da) | . Amaia | . Mikel |
| . Xabier | . Zuzendaria | . Kazetaria |
| . Josune | . Oskar | . Kamera |

Kontalaria: Historia polit bat kontatzeko esan didate eta... hauxe pentsatu dut: ba al dago lagunak baino gauza ederragorik?

Tira, tira. Pom, *pom (bastoiarekin txotxongiloaren etxeko orman jotzen du -edo txotxongiloaren eszenatokian)* Koko! Esnatu!

Koko nire lagunik handiena da.

Pom, pom. Koko! Esnatzeko!

Koko: mmmmm, mmmmm zu al zara Joxepa? Ederki gustura nengoen lotan.

Kontalaria: Bada garaia esnatzeko. Aizu Koko kontatuko diegu ikusleei Xabierren istorioa?

Koko: Xabierrena? A bai, Xabierrena oso polita da.

Kontalaria: Xabierrek lagun asko zituen, baina handienak Amaia Ane eta Josune ziren. Beti elkarri laguntzen zioten.

Amaia: Aizue, non egongo ote da Xabier? Gaur berandu dabil.

Ane: Begira, hor dator.

Xabier: Kaixo lagunak, begira egunkarian zein iragarki irakurri dudan.

Josune: Ia, utzi irakurtzen zer jartzen duen. "Burusoil gelditzen ari zara? Lagunek kalbito deitzen dizute? Hona hemen zure

arazoen soluzioa: Gomez pelukak. Pelukarik merkeenak eta politenak.

Baina Xabier, ilea erortzen ari zaizu?

Xabier: *(Egunkaria eskuetatik kentzen dio eta buruan jotzen dio berarekin)* Ai neska, batzutan tuntuna dirudizu. Azkeneko iragarkia irakurri ezazu.

Ane: Utzi niri. "Zineko aktore izan nahi duzu? Famatua izan nahi zenuke? Brad Pitt eta Penelope Cruzekin afaltzea gustukoa duzu? Hauxe da zure aukera! Pelikula bat egiten ari gara, eta protagonista behar dugu. Pertsonai nagusia aukeratzeko frogak hurrengo astean izango dira".

Amaia: Eta honekin zer?

Xabier: Ba aktore izan nahi dudala.

Ane Amaia eta Ane: Zeeeeer????

Xabier: Bai, nire bizitzako ametsa da. Baina seguru nago ez nautela hartuko. Nik ez dut inoiz zinerik egin.

Amaia: Beno, ez triste jarri. Guk lagunduko dizugu froga horiek prestatzen.

Xabier: Ez da horren erreza. Ez dakigu zeintzu froga jarriko dituzten.

Ane: Egon lasai. Aldizkari batean irakurri nuen horrelakoetan beti hiru froga ezberdin jartzen dituztela.

Xabier: Hiru froga? Nolakoak?

Ane: Lehenengoa aho korapilo bat buruz ikastea eta ongi esatea da, zinerako beharrezkoa baida ongi hitz egitea eta ahoskatzea.

Josune: Eta bigarrena?

Ane: Bigarrena dantza egitea da, nola mugitzen zaren ikusteko.

Amaia: Eta hirugarrena?

Ane: Hirugarrena zailena omen da. Zineko eszena bat antzeztea da.

(Xabier negarrez hasten da)

Amaia: Zer gertatzen zaizu?

Xabier: Zer gertatzen zaidan? Ba ez dudala inoiz antzerkirik egin, pinguinoak bezala dantzatzen dudala eta aho korapiloak esaten beti trabatzen naizela.

Josune: Jope! Eta horrela aktorea izan nahi duzu?

Amaia: Tira, egon lasai. Zertarako daude lagunak? Guk lagunduko dizugu frogak prestatzen.

Xabier: Lagundu? baina nola?

Ane: Begira, ni dantza talde baten nago eta dantza egiten erakutsiko dizut.

Josune: Nik aho korapiloak ikasteko truku batzuk erabiltzen ditut. Erakutsiko dizut nola egin. Ikusiko duzu zein erreza den.

Amaia: Bai, bai, eta ni ikastolako antzerki taldeko partaidea naiz. Antzerkia egiten erakutsiko dizut.

Xabier: Benetan? Lagunduko didazue? Zuek bai zaretela lagun onak.

Kontalaria: Bai, benetan lagun handiak ziren, ezta Koko?

Koko: Bai, hala da. Aste osoan egon ziren hiru lagunak Xabierri laguntzen. Aho korapiloak ahoskatzen, dantza erakusten eta antzerkia egiten.

Kontalaria: Eta horrela astea pasatu eta Xabier zine estudioa frogak egitera joan zen. Zine zuzendaria aulki batean zegoen eserita.

Koko: hiru pertsona aurkeztu ziren frogak egitera, eta begira zer gertatu zen...

Zuzendaria: Beno, hiru froga egingo ditugu, eta hobeto egiten dituenak pelikula egiteko aukeratua izango da. Lehenengo froga aho korapilo hau ongi esatea da. Minutu bat daukazue buruz ikasteko.

(Zuzendariak paper bana ematen die eta partaideak ikasten hasten dira).

Zuzendaria: Lehenengoa Xabier izango da.

Xabier: Akerrak adarrak okerrak ditu
Adarrak akerrak okerrak ditu
Okerrak akerrak adarrak ditu.

Zuzendaria: Ez dago gaizki. Hurrengoa. Mikel hasi.

Mikel: Akerrak adarrak okerrak ditu
Adarrak akerrak okerrak ditu
Okerrak akerrak adarrak ditu.

Zuzendaria: Tira, nahiko ongi. Hurrengoa, Andoni hasi.

Andoni: Kilkerrak adarrak gogorak ditu. Ez, ez, itxaron...
Ikerrek piperrak okerrak ditu. Edo.. ez, ez.
Ea oraingoan. Eee eperrak ... harra... harrapatu... ez, ez.
Kaka zaharra!
Eeeee, Oierrek izterrak eeee, berdeak ditu! Bai hori bai.

Zuzendaria: Nahiko da, nahiko da. Goazen hurrengo frogarekin. Froga honetan dantza egin behar da. Abesti ezagun bat jarriko dizuet eta zuek dantzatu.

(Musika ezagun bat jartzen du -komenigarria litzateke mundu guztiak ezagutzen duen abesti bat ipintzea non dantza pausoak ezagunak diren Adb: "Macarena"- Xabier eta Mikelek pausoak ezagutzen dute eta ongi dantzatzen dute. Andoni berriz

desastre hutsa da: musikaren erritmoari kasurik egin gabe tximinoak bezala dantzan hasten da, ondoren lurretik bueltaka "break" antzerako zerbait egiten dabil, trikitixa dantzatzen jarraitzen du, azkenean saltoka edonola bukatzen du)

Zuzendaria: Norbaitek arraro xamar dantza egin du eta beste biak nahiko ongi mugitu dira.

Beno, azkeneko froga paper hauetan idatzita dagoen eszena antzeztea da. Oesteko bakeroen eszena bat da, eta hau egiteko aktore profesional batek lagunduko digu. Zuekin, Oskar.

(Oskar, bakeroz jantzita sartzen da. Xabier Mikel eta Andoniri eszenaren papera banatu eta eskua ematen die zorte ona adieraziz.

Ondoren saloon bateko aulki batean esertzen da eta hanka biak aurrean duen mahai baten gainean gurutzaturik jartzen ditu. Besoak ere gurutzaturik ditu. Bakero kapelak aurpegia erdi estaltzen dio Saloon baten Lo egiten balego bezala dago.)

Zuzendaria: Prest lehenengoa. Hasi

(Xabierrek Jhony-ren papera egiten du eta Oskarrek Jack-ena. Oesteko musika entzuten da. Jhony Saloon-ean sartzen da, horretarako bertako ateak irekitzearen keinua egiten du. Txulitoen ibilerarekin eta gaizto aurpegia jarriz siestan dagoen Jack-engana hurbiltzen da. Ondoren pistola atera eta puntarekin jack-ek aurpegian duen kapela atzerantz jaurtitzen du. Musika gelditu egiten da).

Xabier: Eh Jack, herri honetan ez dago biontzako tokirik. Zu edo Ni soberan gaude.

Oskar: A bai Jhony? Eta orduan zer egiten duzu oraindik hemen? Oraintxe ateratzen da azkeneko diligentzia.

Xabier: Azkeneko aukera duzu Jack.

Oskar: Ez Jhony zuretzat da azkeneko aukera.

Xabier: Gizona baldin bazara atera kanpora nirekin.

Oskar: Ederki. Konpon ditzagun gure arazoak behingoz.

(Saloon-etik kanpora ateratzen dira. Bakeroen arteko duelua egiteko prest jartzen dira: bataren bizkarra bestearen bizkarraren kontra. Oesteko beste musika bat entzuten hasten da. Tentsioa da nagusi. Pertsonai bakoitzak 5 pauso aurrerantz ematen ditu eta ondoren bira erdia ematen dute, biak aurrez aurre geldituz. Eskua pistolatik gertu gertu dute, berehala ateratzeko prest. Orduan musika gelditu egiten da, eta momentu horretan pertsonai biak arin arin pistola atera eta tiro egiten dute. -Kontalariak, eszenatoki atzealdean jarririk, pandero edo danbor batekin kolpekada ozen bat emango du tiroaren zarata eginez-tiroaren ondorioz Jhony lurrera erortzen da).

Xabier: *(Arnas estuka dago eta lurretik arrastaka Oskarrengana hurbiltzen saiatzen da)* Eh... Jack..., hil aurretik konfesio bat... egin nahi.. dizut.

Oskar: *(Bere aurrean zutik dago)* Bota.

Xabier: Amak... hilzorian zegoenean... zera esan zidan... zu eta ni... zu eta ni...

Oskar: Zu eta ni zer?

Xabier: Anaiak garela.

Oskar: Anaiak???

Xabier: Bai..... anaiak. *(Azken arnasketa hartu eta hil egiten da).*

Zuzendaria: Moztu! Ongi da. Hurrengoa prest. Hasi.

(Mikelek Jhony-ren papera egiten du eta Oskarrek Jack-ena. Oesteko musika entzuten da. Jhony Saloon-ean sartzen da, horretarako bertako atea irekitzearen keinua egiten du. Txulitoen ibilerarekin eta gaizto aurpegia jarriz siestan dagoen Jack-engana hurbiltzen da. Ondoren pistola atera eta puntarekin jack-ek aurpegian duen kapela atzerantz jaurtitzen du. Musika gelditu egiten da).

Mikel: Eh Jack, herri honetan ez dago biontzako tokirik. Zu edo Ni soberan gaude.

Oskar: A bai Jhony? Eta orduan zer egiten duzu oraindik hemen? Oraintxe ateratzen da azkeneko diligentzia.

Mikel: Azkeneko aukera duzu Jack.

Oskar: Ez Jhony zuretzat da azkeneko aukera.

Mikel: Gizona baldin bazara atera kanpora nirekin.

Oskar: Ederki. Konpon ditzagun gure arazoak behingoz.

(Saloon-etik kanpora ateratzen dira. Bakeroen arteko duelua egiteko prest jartzen dira: bataren bizkarra bestearen bizkarraren kontra. Oesteko beste musika bat entzuten hasten da. Tentsioa da nagusi. Pertsonai bakoitzak 5 pauso aurrerantz ematen ditu eta ondoren bira erdia ematen dute, biak aurrez aurre geldituz. Eskua pistolatik gertu gertu dute, berehala ateratzeko prest. Orduan musika gelditu egiten da, eta momentu horretan pertsonai biak arin arin pistola atera eta tiro egiten dute. -Kontalariak, eszenatoki atzealdean jarririk, pandero edo danbor batekin

kolpekada ozen bat emango du tiroaren zarata eginez-tiroaren ondorioz Jhony lurrera erortzen da).

Mikel: *(Arnas estuka dago eta lurretik arrastaka Oskarregana hurbiltzen saiatzen da)* Eh... Jack..., hil aurretik konfesio bat... egin nahi.. dizut.

Oskar: *(Bere aurrean zutik dago)* Bota.

Mikel: Amak... hilzorian zegoenean... zera esan zidan... zu eta ni... zu eta ni...

Oskar: Zu eta ni zer?

Mikel: Anaiak garela.

Oskar: Anaiak???

Mikel: Bai..... anaiak. *(Azken arnasketa hartu eta hil egiten da).*

Zuzendaria: Moztu! Ongi da. Hurrengo prest. Hasi.

(Andonik Jhony-ren papera egiten du eta Oskarrek Jack-ena. Oesteko musika entzuten da. Jhony Saloon-ean sartzen da, horretarako bertako atea irekitzearen keinua egiten du. Txulitoen ibilerarekin mugitzen da, baina Jack-engana hurbiltzen ari dela estropezu egin eta lurrera erortzen da. Ondoren pistola atera eta puntarekin jack-ek aurpegian duen kapela atzerantz jaurtitzen saiatzen da, alferrik ordea, bost edo sei saiakera egin ondoren kapela eskuarekin kentzea erabakitzen baidu).

Andoni: Eh Juan, herri honetan zu edo ni... zu edo ni... Nola zen? Ahaztu egin zait.

Oskar: Jhony diligentzia bat dago oraintxe bertan. Zer egiten duzu oraindik hemen?

Andoni: Zer egiten dudan? Tontoa dirudizu. Ba froga bat aktore izateko, horretarako nago hemen. Ni oso aktore ona naiz.

Oskar: *(Ahopeka hitz egiten dio)* Baina, baina... Eszena egiten ari garela... *(Normal hitz eginez)* Jhony, zure azkeneko aukera da.

Andoni: Ah bai, eszena, egia da. Eh Juan herri honetan zu edo ni soberan gaude.

Oskar: *(ahopeka hitz eginez)* Hori lehen esan duzu, ondoren datorrena esan behar duzu.

Andoni: Ea zer tokatzen zaidan esatea. Zeraaaaaa... *(poltsikotik tximur tximur eginda duen paper bat ateratzen du - aurretik Oskarrek banatu dien eszena da- eta irakurtzen hasten da)*. Jack: a bai Jhony? eta orduan zer egiten duzu patatin patatan... azkeneko diligentzia. Jhony: ez Jack ez dakit zer, badakit zer... Ah bai hemen goaz. *(irakurtzen jarraitzen du)* Konpon ditzagun behingoz gure marrazoak.

Oskar: Marrazoak ez. Arazoak!

Andoni: Bai hori. Konpon ditzagun behingoz auzoak. Goazen tiroena egitera.

(Saloon-etik kanpora ateratzen dira. Bakeroen arteko duelua egiteko prest jartzen dira, baina bataren bizkarra bestearen bizkarraren kontra jarri beharrean, Andoni Oskarren atzean kokatzen da baina norabide berdinean. Oesteko beste musika bat entzuten hasten da eta pertsonaiak pausoak ematen hasten direnean, Andoni Oskarren atzetik doa. Pausoak eman eta gero Oskarrek bira erdia ematen du, baina Andonirekin egiten du topo mutur aurrean. Orduan, Andoni, gaizki egin duela konturatzen da eta

korrika baten beste puntara abiatzen da. Orduan musika gelditu egiten da, eta momentu horretan Oskarrek arin arin pistola atera eta tiro egiten du, baina Andoni ez da lurrera erortzen, ez da ezertaz konturatu. Oskarrek berriro egiten du tiro, baina Andonik ez du deusik ere egiten. Oskarrek hirugarren aldiz tiro egin, baina Andoni berdin. -Kontalariak, eszenatoki atzealdean jarririk, pandero edo danbor batekin tiro bakoitzeko kolpekada ozen bat emango du tiroaren zarata eginez-.)

Oskar: *(Ahopeka berriro ere)* baina, baina, erdi hilda egon behar zarela lurrean.

Andoni: Ah bai! Egia da. Eskerrik asko. Aaaaaaaaaaaaaah, aaah, Aaaaaaaaaaaaaah, aaaaaaaaaah *(erabat ari da esageratzen bere hilketa).*

Zuzendaria: Moztu! Hau da desastrea.

Andoni: Txo, oraindik ez naizela hil, onena orain dator.

Zuzendaria: Nahiko da, Ez dut tontakeri gehiago ikusi nahi. Beno asko kostatu zait erabakia hartzea, baina egokiena Xabier dela uste dut. Beraz Xabier izango da nire filmeko pertsonai nagusia.

Andoni: Nola Xabier? Andoni esan nahiko duzu, ezta?

Zuzendaria: Bai zera. Xabier esan nahi nuen eta Xabier esan dut.

Andoni: Ez da posible. Argi erakutsi dut neu naizela hiruron artean aktorerik egokiena.

Zuzendaria: Zeu egokiena? Ja! Xabier, Zorionak.

Xabier: Eskerrik Asko.

Kontalaria: Bai, Xabier aukeratu zuten.

Koko: Xabierrek egin zuen pelikula eta arrakasta handia izan zuen. Famatua bihurtu zen oso.

Kontalaria: Bai famatua, baina famak itsutu egin zuen. Hollywoodeko izarra bihurtu zenetik, lagunei ez zien batere kasurik egiten. Ahaztuta zituen.

Amaia: Aizue, Zer gertatzen zaio Xabierri?

Ane: ez dakit. Oso harrotuta dabil aspaldian. Ez digu inolako kasurik egiten.

Josune: Zer gertatzen zaion? Txulito bat eginda dagoela famatua denetik.

Amaia: Begira, handik doa. Xabier! Xabier! Kaixo.

Xabier: *(Asper egindako keinu bat egiten du bere lagunak ikustean)* Ah, Kaixo.

Amaia: Ba al zatoz gurekin parkera?

Xabier: Parkera? Ezin dut denbora tontakerietan galdu. Gauza inportanteagoak ditut egiteko.

(Kaletik zehar telebistako kazetari eta kamera bat azaltzen dira).

Kazetaria: Aizu, uste dut tipo hori Xabier dela.

Kamera: Bai , aktore famatu hori. Goazen ea elkarrizketa bat eskaintzen digun

(kazetaria eta kamera Xabierrengana hurbiltzen dira).

Kazetaria: Kaixo Xabier. "Sabor a Rosa" programakoak gara, *(Xabierriek programa ezagutuko ez baluren keinua egiten du)* badakizu, Ana Rosa Quintanaren programa hori.

Xabier: Ah bai, Ana Rosa.

Kazetaria: erantzungo al zeniguke galdera batzuei?

Xabier: Bai, nola ez, baina mesedez aurpegiko ezkerreko perfila atera, dotoreagoa naiz alde horretatik begiratu ezker.

Kazetaria: Bai, jakina. Zurrumurruek diote Leticia Sabater zure nobia berria dela. Egia al da?

Xabier: Ji, ji,,ji. Ez, ez. Leticia Sabater eta biok lagun handiak gara baina besterik ez.

Kazetaria: Xabier, Nola lortu duzu horren famatua izatea?

Xabier: Beno, ez dit inork lagundu. Nire lanarengandik izan da soilik.

Kazetaria: Lehen neska mutil hauekin ikusi zaitut. Hauek al dira zure lagunak?

Xabier: Horiek? Ez ez. Nire lagunak Hollywoodean daude: Brad Pitt, Antonio Banderas, Leonardo Di Caprio... Hemengo hauek nire admiradore batzuk dira.

Kazetaria: Mila esker zure denbora eskaintzeagatik Xabier. Orain joan beharra daukagu.

Xabier: Bai, ni ere banoa. Agur. *(Kazetaria eta kamera agurtzen ditu, ez ordea bere lagunak).*

Ane: Hau aurpegia duena!

Amaia: Guregatik izan ez balitz, orain ez zen aktorea izango.

Josune: Bah. Pikutara joan dadila, egunen baten gure beharra izango du, eta orduan ederki ongi damutuko da egin eta esaten duen guztiaz.

Kontalaria: Baina ongi dakizuen bezala, ospe garaiak datozen bezala, joan egiten dira.

Koko: Bai. Arin ospearen tontorretara heldu eta arinago ezezagun bihurtu.

Kontalaria: Hori bera pasatu zitzaion Xabierri. Denbora bat pasatu eta gero, zuzendariak pelikulak egiteko deitzeari utzi zioten. Jadanik ez zuen pelikularik egiten.

Koko: Orduan, Xabier lanik gabe, osperik gabe eta lagunik gabe gelditu zen.

(Josune, Amaia eta Ane izkina baten eserita daude, eta beste puntan Xabier bakarrik burua beso artean sartuta. Ez diote elkarri hitzik egiten. Orduan kazetaria eta kamera eszenatokian sartzen dira. Bat batean Xabier konturatu eta ezagutu egiten ditu.)

Xabier: Eh! Kaixo. "Sabor a Rosa" programakoak zarete, ezta?

Kazetaria: Bai, eta zu, nor zara?

Xabier: Xabier. Ez al zarete gogoratzen?

Kamera: *(Une batez pentsakor gelditzen da)* A bai. Xabier, mediku ospetsua.

Xabier: Ez, ez. Mediku ospetsua ez. Aktore famatua.

Kazetaria: *(Une batez pentsakor gelditzen da)*. A bai Leticia Sabaterren lagun mina zen tipo hura. Aktore famatuarena bromatzen da, ezta? Jadanik ez zaitu inork ezagutzen.

Xabier: Nahi baduzue zine munduko txutxumutxu batzuk kontatuko dizkizuet.

Kamera: Txutxumutxuak? Aizu, zer motatako kazetariak garela uste duzu? Guri ez zaigu txutxumutxurik interesatzen.

(Andoni sartzen da eszenatokian paseatzen egongo balitz modura.)

Kazetaria: Ez al da hori Andoni?

Kamera: Bai, aktore komiko famatua. Goazen elkarrizketa bat egitera.

Kazetaria: Kaixo Andoni, zu zara gaur egun komikorik famatuena. Guztiak diote oso barregarra zarela. Egia al da?

Andoni: Beno egia esan, niri batez ere amodiozko pelikulak egitea gustatzen zait. Ez naiz batere bagerrarria.... zera...barrerriaga... ez, ez garre... rriaga.

Kazetaria: Ja, ja, ja. Hori da hori humorea izatea. Kontatu iezaguzu Hoollywoodeko txutxumutxuren bat?

Andoni? Txutxu zer?

Kazetaria: Txutxumuren bat.

Andoni. Beno nik ez ditut txumutxutxurik... txutxumurik edo musutxorik...

(Kazetaria eta kamera barrez lehertzen ari dira.)

Kazetaria: Ja, ja, ja. Hau da pertsona xelebrea. Aizu, Aurtengo "Oskarra" jasotzea espero duzu?

Andoni: Beno aurren nire laguna den Oskarrek asko pisatzen du, eta ez dut uste jaso ahal izango nuenik. Josune jasotzea errazagoa da niretzat, gutxiago pisatzen du.

kazetaria: Ja, ja, ja. Tipo hau mundiala da.

Kamera: Ja, ja, ja. Bai, Hau bai dela Hoollywoodeko izarra.

Kazetaria: Ja, ja, ja pixak ere irten behar dit. Horrela ezin dut galdera gehiago egin. Eskerrik asko Andoni.

Andoni: Bai, Agur, agur.

(Kazetaria eta kamera badoaz eszenatokitik. Baita Andoni ere, baina irteterakoan estropezu egin eta erori egiten da. Altxatu eta kanpora ateratzen da. Hiru lagunak izkina baten, eta Xabier bestean gelditzen dira. Une batez guztiak isilik daude. Bat batean Xabier negarrez hasten da. Besteak isilik eta ezer egin gabe. Xabier lasaitzen denean, dagoen tokitik mugitu gabe hitz egiten hasten da).

Xabier: Aizue, zuekin hitz egin nahi nuke.

(Une batez isilunea. Ondoren Xabier altxatu eta hiru lagunengana hurbiltzen da.)

Xabier: Barkamena eskatu behar dizuet.

(Isilunea. Lagunek ez diote aurpegira ere begiratzen).

Xabier: Oso Gaizki portatu naiz zuekin.

(Isilunea. Lagunek jarraitzen dute inolako kasurik egiten).

Xabier: Arrazoi guztia duzue. Ni ere zuen egoeran banengo, betirako haserretuko nintzateke. ez nuke kasurik ere egingo.

(Bira erdi eman, eta burumakur, lagunengandik urruntzen hasten da. Eszenatokitik irtetear dagoenean...)

Ane: Harroputz hutsa izan zara.

(Xabier gelditu egiten da. Bira erdirik eman gabe...)

Xabier: Arrazoia duzu.

Josune: Lagun gaiztoa ere izan zara.

Xabier: Hala da.

Amaia: Eta zikin jokatu duzu gurekin.

Xabier: Zikinegi.

(Isilunea eta guztiak geldi)

Ane: Ez dakit merezi duzun, baina gure barkamena nahi baduzu... etorri zaitetz hona eta eman iezaguzu besarkada handi bat.

Xabier: Benetan???

Amaia: Etorri zaitetz geu damutu baino lehen.

Xabier: Eskerrik asko. Zuek bai zaretela bihotzeko lagunak.

(Lagunengana hurbildu eta lehenengo Ane eta gero Amaia besarkatzen ditu. Josunek, oraindik ere serio aurpegia izaten jarraitzen du. Xabier berarengana hurbiltzen da besarkatzeko asmoz, Josunek berriz, eskuarekin gelditzeko keinua egiten dio.)

Josune: Nire barkamena ez duzu horren errez lortuko.

Xabier: Banekien ba, ezingo nituela lagun guztiak berreskuratu.

Josune: *(Serio, serio eta aurpegira hitz eginez).* Nire barkamena lortu nahi baduzu... *(orduan aurpegiaren espresioa erabat aldatu, eta konplizitate irribarre bat erakutsiz...)* Leticia Sabaterren txutxumutxuak kontatu beharko dizkidazu.

Xabier: Ja, ja, ja. Hori besterik ez bada, Hurbildu zaitetzte, hurbildu... eta entzun, entzun.

(Hiru lagunak irribarretxo entzuteko prest eskuak belarrian ipintzen dute eta Xabierren ondo ondoan ipintzen dira.)

Xabier: *(Zurrumurruka)* Bssss, bsss, bsss....

Kontalaria: Eta horrela guztiak berriro lagunak izan ziren.

Koko: Badakizue, lagun bat baduzue, altxorrik preziatuena baino hobeto zaindu ezazue.

Egilea: Iñaki Aldai
Karmelo Ikastola

